



OHAR GARRANTZITSUA DONOSTIAKO ERABILERA TURISTIKOA DUTEN GELA ETA ETXEBIZITZEI ZUZENDUA.....

ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZEN ETA ETXEBIZITZETAKO LOGELEN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEI DAGOKIONEZ

DONOSTIAKO UDAL ORDENANTZA BERRIA (GAO 2018/03/26)

Donostiako Udaleko *Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen dituen udal ordenantza* berriaren (GAO 2018/03/26) 18. artikulua xedatzen du etxebizitza turistikoaren ostatu jarduerarako **hirigintza erabilera berriaren Aurretiazko Jakinarazpena** aurkeztu behar dela.

Udal ordenantza horren 19.3 artikulua Ordenantza indarrean sartu eta hurrengo hamar egun baliodunetan sartzen diren **Jakinarazpenak “aztertzea”** aurreikusten du; horrek, hala badagokio, **“aldeko hirigintza txostena egitea”** ekarriko du, eta honela azaltzen du:

*3. Ordenantza indarrean sartu eta hurrengo 10 egun baliodunetan sartzen diren **jakinarazpenak aztertzeko** ordena zozketa bidez erabakiko da. Zozketan sartuko dira epe horretan jasotako jakinarazpen guztiak, aurkezteko unea edo modua edozein izanik ere.*

Aldeko hirigintza txostena** egiten bada, etxebizitza dagokion eraikineko bizitegiz kanpoko erabilerarako azalera eta lokalen zenbaketan sartuko da. Horren ondoriozko eraikineko zenbaketa berriaren arabera erabakiko da jakinarazitako eta ondoren aztertutako **erabilera legezkoa den edo ez hirigintzaren aldetik.

Ondorioz, **Turismo Administrazio honetan Erantzukizunpeko Adierazpena** aurkezteko ez da nahikoa izango Udalean hirigintza erabilera berriaren Aurretiazko Jakinarazpena aurkeztu izana; horrez gain, **beharrezkoa izango da “aldeko hirigintza txostena” lortzea.**

Erantzukizunpeko Adierazpen bat aurkezten bada, egiaztatu gabe hirigintza erabilera indarreko araudiaren arabera dela, Turismoaren 13/2016 Legearen arabera **arau-hauste astuna** izan daiteke, 94.4 artikulua xedatutakoari jarraiki, erantzukizunpeko adierazpenean emandako datuen faltsutasuna tipifikatzen duena, eta 100. artikulua araberako 10.001 eurotik 100.000 eurora arteko isuna ezarri ahalko zaio.

2018ko apirila. TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARITZA.